

KANAL ETIKOAREN KOMUNIKAZIO-FORMULARIOA

SALAKETA-FORMULARIOA

Salatutako ez-betetze mota

Araudia Delituen prebentziorako neurriak edo preskripzioak Kode etikoa Finantza- eta kontabilitate-jardunbideak Bestelakoak

(Zenbait aukera marka ditzakezu)

Salaketaren deskribapena

Dokumentuak, frogak eta ebidentziak

Beste lekuko posible batzuk	
Salatzailearen izena eta saila / unitatea / sozietatea	
Salatzaileak nahiago duen harremanetarako modua eta harremanetarako datuak	
Data: Salatzailearen sinadura	Harrera-data: EBBren sinadura

DATU PERTSONALAK BABESTEKO KLAUSULA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa) aurreikusitakoaren arabera, erabiltzaileari jakinarazten zaio Avanza Spain SAK —IFZ: A-64405731; Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatua, 23.750 liburukia, 8 folioa, 8. atala; egoitza soziala: San Norberto kalea 48 - 50, 28021 Madril— (aurrerantzean, “Sozietatea” edo “Avanza”) formulario honetan bildutako datuak eta egindako ikerketen ondorioz sortutakoak tratatuko dituela, Sozietatearen eta haren filialen (aurrerantzean, “Avanza Taldea”) delituen prebentziorako kudeaketa-ereduaren esparruan jasotako salaketak bideratzeko eta tramitera onartzeari buruz erabakitzeke, haiek analizatzeko, espedienteak inbuitzeko eta horretarako bidezkoak diren jarduketak egiteko helburu bakarrekin.

Arestian definitutako tratamenduak antolakuntza- eta kudeaketa-ereduaren testuinguruan gauzatuko dira, Avanzak inplementatutako delituen prebentziorako kudeaketa-sistemaren esparruan, honako hauek oinarri hartuta: (i) delituak prebenitzeko interes publikoa; (ii) Kode Etikoa aintzat hartutako xedapenetan eta Avanza Taldearen barruko giza baliabideen kudeaketa globalean irregulartasunak eta/edo ez-betetzak prebenitzeko Avanzaren interes legitimoa; eta (iii) Avanzako enplegatua bada, erakundeak bere lan-plantilla kudeatzeko ahala eta, hala badagokio, bi alderdien artean izenpetutako lan-kontratuaren esparruan bidezko diziplina-neurriak hartzeko ahala.

Avanzak behar diren neurriak inplementatu ditu informazioaren segurtasun eta konfidentzialtasun egokia bermatzeko, bereziki salatzaileari dagokiona.

Informazioaren hartzaileak dira Sozietatearen Etika eta Betetze Batzordea (EBB) eta ikerketa baten esparruan edo Kanal Etikoa funtzionamenduaren auditoretza egiteko laguntza eskain dezaketen beste pertsona edo erakunde batzuk, Kanal Etikoa Erregelamenduan ezarritakoaren arabera —erabiltzaileen eskura dago Sozietatearen intranetean—.

Era berean, behar diren ikerketa-lanak egiteko, prozeduraren ondoriozko erantzukizunak zehazteko (lanekoak, zibilak eta/edo penalak) edo Avanza Taldearen barne-antolakuntzako politikak gauzatzeko, salatutako gertaerak direla eta, zure datu pertsonalak taldea osatzen duten filialeari komunikatu ahal izango zaizkie, baldin eta ikertutako gertaerekin zerikusia badute. Avanza Taldearen konfigurazioa kontsulta dezakezu hemen: <https://www.avanzagrupo.com/empresas/>.

Jakinarazitako gertaeren arabera, Avanza behartuta egon liteke, halaber, zure datu pertsonalak eta zuk emandako informazioa Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, salatutako gertakariak ikertzeko eskumena duten Administrazio Publikoko beste organo batzuei, Justizia Auzitegiei eta gainerako organo jurisdikzionaleri aditzera ematera edo jakinaraztera. Aurrekoa ezertan galarazi gabe, salaketa bat faltsua bada, zure datuak salatutako pertsonari edo pertsonari jakinarazi ahal izango zaizkie, horiek aukera izan dezaten, bidezkotzat jotzen badute, salaketa faltsuaren ondorioz egoki lekizkiekeen legezko akzioak hasteko, eta ikerketaren ondorioz hasitako prozedura judizialtan edo administrazio-prozeduretan inplikaturako pertsonari ere jakinarazi ahal izango zaizkie.

Salatutako gertaerei buruzko ikerketa hastea bidezkoa den erabakitzeke eta, hala badagokio, hura tramitatzeko ezinbestekoa den denboran tratatuko dira zuk emandako datu pertsonalak. Ikerketak artxibatzen badira, datu pertsonalak ezereztu egingo dira. Dena den, zure salaketa formulatzen duzunetik hiru hilabete igaro eta gero, Sozietateak ezereztu egingo ditu zure datu pertsonalak Kanal Etikotik. Hala eta guztiz ere, datu horiek tratatzen jarraitzeko aukera izango du, horren beharra izango balu ikerketa amaitzeko eta antzemandako irregulartasunak argitzeko, besteak beste, neurri judizialen, administrazio-neurrien edo lan-arlokoen bidez. Halaber, salaketei buruzko informazioa kontserbatu ahal izango da, datu pertsonalak anonimizatu ondoren, Avanza Taldearen delituen prebentziorako kudeaketa-ereduaren gainean programatzen diren balizko auditoretzak egiteko.

Jakinarazten dizugu edozein unetan egikari ditzakezula datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezereztzeko, tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko, edo datuok transferitzeko eskubideak, bidezkoa balitz, datu pertsonalak babestearen arloan aplikatzeko den araudiari jarraikiz. Horretarako, idatzizko komunikazio datatua eta sinatua bidal dezakezu, NANaren fotokopiarekin (eta, hala badagokio, ordezkariaren NANarena) eta jakinarazpenetarako helbide batekin batera, Sozietatearen egoitza sozialera (Avanza Spain SA, San Norberto kalea 48, 28021 Madril) edo helbide elektronikoa honetara: canaldenuncias.avanza@mobiityado.com. Ildo horretan, salatuak bere eskubideak egikaritzeko dituela bermatzen da, eta horrek ez du esan nahi salatzailearen datua emango zaionik. Azkenik, erabiltzaileei jakinarazi zaie eskubidea dutela Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren babesa jasotzeko, haren web-orriaren bitartez: www.aepd.es.

Dokumentu hau sinatuta, emandako datu pertsonalak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla bermatzen duzu. Zure datu pertsonalen edozein aldaketa lehenbailehen jakinarazi behar zaio Sozietateari.

Salatzailearen sinadura